URRILLA
6
Igandea
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 irko. iru ilez
Bilbao'atazkua.. 11,25 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 112,50 " "
Beldayen itunduba

XXIII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.508 zenbakija

Euzkotar Umien Aldez

Irakasle andereño:

"Askotan arkumetxoak atzerantz egiten dute, eta orduan lokafi batekin lepotik teink egin oi zate. Baña arkumetxoak ezpain buztiakaz lokafiari kaskaa egiten dioe." — Francis Jammes. "Le paysan...".

Emango ez diozun zigofik ez egiozu umeari agindu. Esaterako: "Aritmética edo Zenbakistiko asmakizun ori ordu erdian ateratzen ez ba'dezu beste iru salagoak atera bearko dituzu".

Umeari ori esatea burugabekeri bat baño ez dezu. Bat eta bera efaza atera ezin ba'du nola leike ba beste iru gaitzagoak ateratzea? Zigof ori agindu afen, umeak ezin ba'du, ez dizu asmakizunik aterako ez dakialako, ezin dualako.

Au, zeuk ere ezagutu egin bearko dezu baldin itsua ez ba'zera beintzat, eta zeuk agindutako zigofik ezin eman zeinke, eta onela beste baterako aginpidea galtzen dezu.

Era onetara umeak igefiko du zuk agintzen dituzun zigofak eta aizea berdiñak dirala.

Agindu baño lenagotik ondo pentzatu egizu zer zigof agintzen dezun; edozelan agintzen ba'dezu, izan leike zigof ori ezin beti izatea edo astunegia dalako, edo zuzentasunaren aufka dijualako.

Ez zaite iñoiz zeure ikastolan zuzentasunaren aurka juan. Umeak oso zuzenak dira, biotza oraindik usteldu gabea dauketa ta, eta zuzentasun gogoa oso sendoa dute. Augaitik zuzentasunaren aurka egiten dezun gauzarik txikienak ere min aundia euren biotzean sortu oi diote.

Eta aufetik ondo pentzatu gabe edozer zigof agintzen ba'dezu, gauza bi abetakoren bat egitera zeure burua beartuko dezu; edo agindutako zigofik eman ez geyegia dalako (aginpidea galtzeko era) edo ta danen gañetik esandako zigofa ezafi (zuzentasun gogoa apurtzeko era).

Zeuk esandakoa umeak idazten ari diranian, ez egiozu, esan utz bakoitza amaf bider idatzi bearko dutenik. Zigofaren bildufak berak ezestatuko ditu zure umeak, eta iñoiz egin oi ez dituzten utzak egingo dizkitzute egun ofetan.

Eta beste egunetan iru edo lau utz idazten zituan umeak amairu edo amalau idatziko ditu, bilduraren menpean azkatasunik izan ez dualako ondo pentzatzeko.

Zuk esanda (al dictado) idazten ari diran umeak ez dituzte utzak nai ta idazten. Utz bakoitza iru bidef idaztea naikoa dute, eta ez diozu zigofa bezela agindu beaf ori, ikasteko era bezela baizik.

Gai onetzaz ari naizan ezkeroz gauza bat esan beaf dizut, Ezagutu ditut irakasleak oso gaizki oguzten dutenak eta gañera, umeak iñoiz galdetzen ba'dute, esaterako: —"Izki aundiaz idatziko al degu itz au?" —"Ori zebek igefi" legof legof erantzuten dutenak. Irakasle abek umeak utzean afapatzeko pozik daudela dirudie edo umeak zenbat utz geyago idatzi nayago dutela.

Ez da ori idazkera edo ortografia onduen eta efazen erakusteko era; lenengotik utzak eragin eta gero utzak zuzentzen jardutzea da ta.

Askoz era obea dezu eta onuragafiagoa, umeak idatzi beaf dutena lenengotik eurak liburuan irakurtzea, idazkera edo ortografia delakoa lenengoz begiakaz ikasi dezaten eta gero eskuz ere bai idatziaz.

Idazkera begietatik sartzen dan gauza da geyen bat (memoria gráfica) eta kalte aundia dagio ikasleari utzak begi aufean safi ikusteak.

Zeuk ondo idatzita aufian lefo bat ipiñitakoan esan zenkizu bai: "Lefo au idaztean utzik egiten ba'dezute, utz bakoitza amaf bidef edo geyagotan idatzi bearko dezue" eta gañera esandako zigofa bete. Aufean daukan idatzia egitean utzak idazten dituan umeak, edo alperkeriz edo afetarik ez artzeafen egiñak dituala esan gentzakelako.

AÑITOKIETA.

Araba'tik

XXIII

ATZERA.—Bei ta idiai atzeratuazteko darabile.

BARANDA.—Erderazko "barandado". Zubiaren ormari ere "baranda" deitzen diote.

LATA.—1, Intxaufak zugaitzetik botatzeko darabilen ageari; 2, Lukainkak eta exegitzeko, sukaldean izaten diran agari; 3, Lafaña ixteko jartzen dituen agari.

Españeraz eta pantzeraz ere ageari "lata" eta "latte" deitzen diote.

GOÑIÑGO. — Afautzearen gofingoari.

LAPA.—Gari tartean (hieros" tartean ere bai), izaten dan belar txaf bateri. Oso latza da. Jantziari itsatsi egiten zayo. Berastegi'n ere esaten dute. Españeraz "lapa".

MUGITA.—"Efosario-belafa,'ri ("tostero" ere esaten dute); Maeztu aldetik "mugiz" deitzen omen diote.

MAKERA.—Umatu dan urdama zafari.

KOTXO.— Urdea. Pantzeraz "coche" deitzen zayo urdamari. Erderaz "cochino" itza dago.

MOROKIL.—Ura, gatza, berakatza eta arta-iriñakin egiten dau saldari. Uraren ordez esnea ere ba-darabile.

PIZTIA.—(Lenengo "i" gediñak du „',„). Iguña ematen duan zomofoari. Ume sistrin eta gexalari ere bai.

ZALGA.—"Hiero" deritzan belafak duan bikla be-zelako bat; aundiagoa eta borobilagoa. Abere janari da.

ZALGE.—Aberientzako belafa. "Alorbea" bide da. "Alorbe" ere entzun detalakoan nago.

TXASTA.—1, Bihi txiki-txikidun belar bateri. 2, Efekatxoetan ibili oi dan txori bateri.

TXUÑO.—Urdeari.

TXUÑINO.—Gorostizko makilaf.

AKARATZ.—Arantzadun mueta bateri: bihi gofiak ditu; ostroak borobilak eta distikofak.

MORKOTZ.—Apelaniz, San Roman de Kanpezo eta Santa Cruz de Kanpezi'n gaztiña-morkotzari.

ESTILAÑA. — Ezta igartzen. Ikatza egiteko erabiltzen dute. Ezta ikatz ona izaten.

AZKONAR.—(Erderaz "tasugo" esaten diote). Pizti onen nafu polita idi ta beyen buru gañerako ibiltzen dute.

MANDAULI.—Mando-elbiari.

TXAKUR.—Txakufari.

TXAPEL.—Txapelari.

SUSTOBIA. — Eultze-ondakiñari. Zimaufetarako izaten da eultze-ondakin ori. Sats-obi: sastobi, sustobi.

Idazkai ontako itz batzuek aufeko idazkayen batean ere azalduak dira. Gaurkoan ordea azalpen geixeago eman diet, edo lengoaz gañera, beste zerbait ere esan nai dutela adierazi.

Idazkai onekin bukatu det nere gaya.

Zaldu rdo'ri buruz egin detana, beste efi askori buruz ere egin daiteke eta egin bear litzake. Araba'n euzkal-itz asko arkitu genezake. Ortarako ordea, bilatu egin bear. Eta itz oyek bilatzeko, Araba'n, egokienak apaizak.

Iñork erantzungo ote dio "enbido" oni? Zai gaude... eta gaudeke.

MIKELATS.

Santa Marina'n

BRIÑAS'EN GAXOTEGIJAN. — Ilabete bi bafun Club Deportivo'ko mutilak noz juango ziran ifanduten, gexotegi ofen gexuak ibili dira, bere seregiñak ikusteko baña dana elduten da ludi onetan.

Gaxuen poztasunaz Club Deportivo'ko mutilak Santa Mariñe'ra igaro dan igandian juan ziran.

Sendategi aufian "pista de circo" bat ondo ipiñita eguan, aldemenian arkijak jagifa egozan gaxuak jezaftzeko. Lenengo ta bigafengo txamaletan, etzanda egoten jarlekuotan gexo batzuk eta batek bere oian, gexuen sendijak eta ez ori bakafik gexotegi onduan dagon txakijan oste asko eguan.

Gauza polifak ikusi genduzan eta euren aftian txakufen lanak, "Neska" ta "Txirta", zelako gauzak egin zan triskalarijak, Zenith sorgintzalia Etiopia'tik etofi zan -alan esan eban berak-ta ofetxegafik zeo -zer nekatuta eguan baña afigafizko biafak egin ebazan; ereslari ta abeslarijak edefto, baña ifaun bat "Txinbotafentzako"; ¿euzko abestijak noizko?

"Pufuzale" be edefto bere ipuiñekin. Oso txalotubak ixan ziran zenbaki gustijak, eta poz-pozik geratu ziran gexuak, sendijak, eta gustijak.

Zorijonak eta eskefikasko Club Deportivo'tafai gexuen ixenian. Olantxe egin biaf da; ez izketan jarduten, erori danari laguntzen baño.

Sendategi onetan ba-dagoz geure anayak diran abeftzaliak be. ¿Eta zef egiten dogu eurengatik? ¿Zer egin? Eurak ikusten juan, itz samufak esan, jakin nola dagon bere sendija, izpafingijak bialdu, idaztijak eta abaf. Espetxietan aurkitzen diranai zorijona emoteko, abeftzale askok ikeftuten dauz, eta kebedafak, izpafingijak eta txindija be batzuk eruaten dautse. Gexubai be adizkidien ikertaldijak poza ta zorijona eruaten dautsez.

JOKIN.

Euskeltzaleen Orratza
Lko. BAT
Saltzalientzat
Saneurri bereziak
AKIETA TXIZALEA
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Zortzitik - Zortzirat

IHIZTARIEN BEŃI.—Ohi duten bezala gure ihiztariek Buruilaren hogoita bederatzian hedatu dituzte beren sarak, uso gaichoen hetarat biltzeko. Sara, Aldude, Ochkich usotik biziko dira zenbeit ilabatez. Baionan nahi duzue zerbeit jakin, irakurtzale maiteak? Gu bagine Eskual-Hefiko nausi, ihiziko molde hori ez ginuke onhartuko!

AŔAINTZA.—Atuna ufuntzen hasi orduko, chardina agertu da. Afaintzaleen begitartean atsegina baizik ez da egun hautan: agian iraunen diote. Chardin lafia da afas.

GERTAKARI BAT.—Doniane Lohitzuneko inguruetan bi beribilak elgar jo dute. Bi gidarietarik bat aski kolpatua da, Jaureguibefy jaun miriku eskualzale eta abeftzalearen koiriata. Baionako eritegi batetarat ereman dute berehala, han behar bezala artatzeko.

YBARNEGARAY.—Urte huntan nihorat atzen gehiago agertzen Ybarnegaray gure Eskualdun deputatua: eri zen. Hainitz hobeki doa orai eta laster lehengo heinerat helduko da. Eskefat Jainkoari!

GURE PILOTARIAK.—Ez dire lo egon aste huntan ere gure pilotarlak: frango partida egin dute. Aiphagafiena Afangoitzen izatu da: Sein eta Chubero alde batetik, Hafiat eta Bidegain jaun aphezak bertzetik. Eta... aphezek irabazi! Sain Monóragones'en kontra arizana zen aintzineko igandean eta irabazia zuen. Beha beraz zer haineko pilotariak diren Hafiat eta Bidegain aphezak...

ANDERE IRIBARNE.—Paris'en ginuen egun hautan gure hefitar andere Iribarne "tennis-lari" famatua. Befitz ere Eskual-Hefiari ohore egin dio, aintzinerat eman diozkaten Mercier, Henaroten, Lili de Alvarez, Goldomidt eta bartze batzu erhautsiz. Gora eta gora bethi Eskualdunak! Gora Simona maitagafia!

OSTIKOLARIAK.—Udazkenarekin etho fi da ostikolarien sasoina. Ongi hasi dire Eskualdunak, Henoaiar eta Miafiztafak airez-aire nausitu direnaz geroz. Nahiz, egia efateko, pilota mileran maiteago dugun joko hori baino, batere etzauku itsusi hortan ere Eskualdunak nausitzea! Gora!

DOHAKABEA.—Duela zenbeit egun Ahetztar gazte batek bere buruari tiro bat emanik, Baionako eritegirat eremana zuten. Han hil da astelehenean, berebaitaratu gabe. Dohakabea!

EZTIA MAITE.—Eztia maite du Hazpandar okhin batek: haizu da: bainan eztia maite duelakotz, hauzoari kotoiak ebastea ez da haizu. Hori egin duelakotz, giltzapean sartu dute poliki-poliki delako okhina. Bakotchari berea da zuzenbidea.

KONTRABAŃDAN.—Azeri zahafa baino gehiago izanagatik, Ziburutaf kontrabandicht bat lephotik hartu dute bi muzazain Eskualdunek. Muthur joka hasi da berehala, bainan bakafik zer egin zezaken bigen kontra? Baionako presondegirat ereman dute zenbeit egunentzat..., han ikas dezan kontrabandak nihor ez duela behinere aberastu.

SOLDADO.—Ufiaren hamabortzean Eskualdun gazte andana bat joanen da, norapeit, soldado-goaren egiterat. Ez dezatela beren Eskualduntasuna gal maketoekin, hofa zer galdetzen dio tegun bakafik hefitaf gazte horieri...

AROA.—Aroa hoztu zauku hiruzpalau egun hautan. Bizkitartean iguzki polit batek atsegin egin lezake oraino. Ez ahal zauku alderat joan?

HAUR PRODIGOA.

"Euskara garbia" ¿zerda?

Dakienari nago otoika! Aalik eta garbiena, jakin bear dugu zerika daiteken garbitasun ori.

Askotan entzunik nago efaten: "norbait ura, euskara garbiz mintzo da".

Bai ta ere, euskar lan bat, "euskara garbian eginik edo idatzirik dagola".

Aspaldidanik, nik ere, ustez ta badakitala; euskara garbia berexten dut, euskara "garbiegitik". Nola? Aditzen dutana garbia, eta aditzen ez dutana... ez dakit zer.

Baño; berexte ori badaiteke, nik ez dakitalakoz. Orgatik, dakienari otoi, itz bat bedere.

Bein baño geiagotan gertatu zait, euskaldun ez ikasia batekin euskaraz itzketan ari naizela; afek neri: "ba, ofek euskara garbia du".

Eta ni bozik; oroiturik, Abbadie jaun zenak ziona: "euskaraz ikasteko; jende xea, bego nagusi".

Aldiz; euskaldun letradun askorentzat, erdar-itzik gabea, euskara garbiena.

Gai untarik, azken "Ekin" astekarian, "Ertze" jauna mintzo da, efaten duela: "euskar idazlek ez dutela euskara garbiz idatzi bear, baizik eta "efitar euskara, euskar efexa".

Ergo: efitaf euskara ez da euskara garbia.

Nik uste, euskara garbia badaitekela, erdar-itzekin ere, non ta itz oriek aspaldidanik guretuak ditugun; nola aiztian eman dutan "letradun" itza.

Erderaz ez dakiten euskaldun utsek, beren artean darabilatan izkuntza, euskara garbia izanen da; eta euskaldun oriek, buru argidunak baldin badire, orduan eta garbiago agertuko da beren izketa.

Orgatik, bein baño geiagotan efanik nago: euskaldun geienak aditzeko gisaz egina dagon euskar lana, euskara garbiz egina dalakoz, izanen dela.

Euskara garbia ez dago bakafik itzetan; baizik eta, gogoetak adiaraztean, itzen joskeran, eta aditzaren erabiltzean.

Uste baño gafantzi andiko auzia, ¡garbitu nai duguna!

¡Euskara garbia berexten baginaki! ¡Euskaraz ikasteko aski ginuke!

Orduan, nik efan banezake, "Axular Mogel, Lafamendi, Mendiburu, Afue, Agife, Kirikiño eta, euskara garbia erabili zufen; arkigun eredutzat eta ek bezala egin zagun izkuntzaz, mamiz ezpadezakegu ere.

Nik, eredutzat artu ditudanen artean, leena, Axular izandu da.

Euskaraz ikasten asi nintzenean eta Axular-en "Gero" irakurtu nuelarik; aren jakintza, aren mamiak eta izkuntzak beretu ninduten eta orai, euskar-idazkai asko irakurturik nagola, berdin, ura zait garbiena, aberatsena eta goxoena.

Baño orgatik; ez nantzuela Uribitafte 'taf Ibon jaunak dion Praiskuren antzeko irakurlea. Axular edo Mañezi-ren idazkaiaz landa, irakurtzen ditut... arenok bedere, noiz gostaiak; legia efateko, orai etzaizkit leenaña zail.

"Ibiliz, egiten da bide." (1)

LAŔEKO.

(1) Zuzen zagoz ofetan, Lafeko jauna: zeuk diñozun lez, ibilijaz ibilten ikasten da, ba. Euzkera zalari samuf eristen be, baña, alantxe ikasten da: mafasunez begiratu, ta gogo-onez irakufijaz.

Zuk ori egiten dozula, zeure gaufko idazlan mafe onek diñost: "orai etzaizkit leen aña zail" idazki ofetako zeure itzak dira-ta.

"Axular edo Mañezi-ren idazkaiaz landa, irakurtzen ditut... arenok bedere, noiz gostaiak": oneik be zeuriak.

Nik be gustijenak irakufi oi-dotaz. Onetan, Peru-tafa nozu, ni, Lafeko jauna: "tripakijak" dirala, naiz "estopadua" ixan, jakijak ba-dira (euzkera-jakijak) nire abuan gozo saftuko dira. Urdalez sendotxubagua ba'nitz, bafiz, euzkerazko lapikuan egosijak dirala jakiñezkero, asunak be jan-egingo neukez.

¿Zetarako ibili, ba, Praisku lez, areri muxin, eta oneri muxin, astija galdu ta "taberna"-tik urdail utsaz urtetako?

Euzkerea'ren zorija eztago, ba, nire ustez, euzkera efeza edo zala erabiltian, benetako euzkera-gosia eukitian baño. Gose eztanari gozopilak emon gura ixatia, alperikua da. Nai ixatia ta al-ixatia, ostera, anayak dira.

Ganera ainbat bidaf entzun ixan dotan euzkera efez ori zein efitako efi-euzkera efeza dan jakifeko nago.

Esaterako, gaufko zeure idazlan ulertefezau, be, Lafeko mafe, ez uste ixan, gero, Euzkadi osuan ulertuko dautzubenik.

Beraz, ainbeste zeresan emon eta emoten dauzan auzi au bein ta betiko ebazteko, ondo ixango litzake eredu bat eukifia.

Ñiretzat, Peru-tafa nazanezkero, eztago eredu txafik. Gauza be enaz, baña gauza ba'nitz, be, sukaldari ixaterik eztot gura. Besterik ezian, "Mañize'ren" "estopadua" be, bardin daust niri.

Nik gura neukena euzkerea il-zoritik ataratia da. Baña dakustanez, orok mafe dogula-ta darabilgun zoritxafeko euzkera gaxo au, osakayak bide dirala softu dan eztabaida iguingafi onetan astija galtzen gabiltzazanartian il-egingo yakula-ta nago... Azketsi, Lafeko jauna. Aguf.—*Ibon.*

MENDATA

IL-OTOIKETAK.—Aspaldion Amerikan dagoan Lafinaga'taf Jon'en aginduz eta bere guraso ziran Lafinaga'taf Joseba eta Zabala'taf Ebaiste'ren gogo-aldez, ilonen lenengo egunian, geure eleiz-nagosian il-otoiketak izan ziran.

Eleizkixun onetara lagun asko eldu zan.

Goyan begoz geure bafuko adizkide genduzanen gogoak.

ELEIZ-ONDO.

Errijetatik

DURANGO

MIKEL DEUNA.—Euzko-Alderdi Jeltzaliaren saindari au'u eben Euzkadi-Buru-Batzafak XI.gu'en zin edo juramentu egiñik Deun onen oñetan, Jeltzaleak egun ofetatik gure zaindari artzen dogula, eta Aralar mendi galufetik zaindu gaizan, aldi gustietan, eta bera ipinten gure aldeztzale, lortu egiteko Euzkadi'n azkatasuna.

Emakume Abeftzale - Batza'k eraldu eben jaupa mesa bat igaro dan igandian goxeko bederatzietan Andra Mari'ko Ertxadonan Mikel deunaren ondian; mesa onetara abeftzaleak ondo eratzun daben abeftzale uzkurtzaliak. Batzuk Jauna artuegaz mesatan, eta beste batzuk otoitz egiñaz. Ederto eranzun dogu Mikel Deun Gongozona goralduten.

DABILTZAZANAK.—Gazteiz'tik etofi da aldi luze bat igarota gure Aberkide Abaitua'taf Kandida, ta bere emazte ta otseñak.

Elexoste'taf Joseba, eta bere emaztea Araya Araba'tik, aldi bat igarota.

Bretaña - Pantzie. Belaustegigoitia'taf Perderika eta bere seme Jabier alde artan egon dira egun batzuetan, eta biurtu dira euren sendira.

Gernika'tik. Garamendi'taf Miren, emakume begikua biurtu da bere gurasoakana aldi luzia igarota osaba eta ixekuak.

Prantzia'tik, Gorostiza'taf Gergori biuftu da, eta entzun dot bafiro be lasteF joango ete dan. ¿Zer Gergori? Galdu-gorde on bat itxidozula esan leike. Gustiori ondo etofiak.

Gustiori ondo etofiak.

Adoria aultzen dau... gaste

Lixunkeri - txafkerijaren ondorenguak ugarijak dirala nok ez daki? Txafkeririk kaltegafijena berau dala ardura barik esan gegike. Eta kalte oneitan argi ta garbi agiri oi-da Jaungoiko-zuzentasuna. Gogo -atsegintasunak zabartu ta aragikeri bilagosez dabilanari ludijon damotso Jauna'k zigofa. Txafkeri au aberetija da bai? ta bere jafatzaliak aberetu oi-dauz Jaungoikoa'k.

Egizko gixonaren ezaugafija adoria da. Adore bako gixona gixon gitxi da. Zer da, baña adoria? Gixonaren elburuban begijak josi ta atzerarik egin barik, nai ta bidia arantza zofotzez erainda idoro, beti aufera ta aufera egitia. Bijotza egizko mafasun bidia ziaf beti eruatia; adimena egi utzez argituta erabiltia. Adoredun gixonak egun baten aberastuteko erea eukifa be, era ori bidezkua ez dala ba-dakus txirotasunian lotuko da pozez; bere siñismen ta mafasunak zapalduten biaftuta be, lenago ixuriko dau ziñopa-aldaren bere sanetako odola, bijotz-adimenak bere bidetik atara baño. Gaste makabeotafak lez erantzungo dau: "Geure gurasuen lagijak zapaldu baño len erijotza". Eta urkamendi - eskilarak espanetan iñibafez igongo dabez.

Orixe da adoria. Eta gaste lixunkeritsuba ezin, adoregüna ixan. Bere bijotzeko espan gosetijak aragi-atsegiñetan ezafi dauz. Bere elburuba aragikerijan imiñita, ames bakaf batek iziñuten dau bere ixate txirua: aragi-atsegin guzurtijok geñutia. Onetariko gaste baten erijotza lenengoz entzun nebanian, otz-dardarenak dardaratu nindun betik gora. Bere inguruban ziran bere ama alarguna ta anai -afebak: aragikerijak eroyan obira gaste efukarija; bere begirakun lafi, arnasots estubak, noxian bein espan legofak idegijez oguzten ebazan itz auzijak aragikert gosea adierazoten eben; amaren-malko gorijak eta bere anai-afeben afen gozuak ez eutsen bijotzik samurtzen. Emakume-gosenaz, emakume-gose... ¡Berba aberetijok jaurti eben erijotz-magalera!

Goxetik gabera gorputza aragiz zaletu gura dabenak ezin, irakufle, adorerik ixan. Eztau elbururik mafe eta elbururik mafe ez dabenak ezin adorez elbururik jafaitu.

Eta ludijon Abefi'rik gaste biafixanez ba-da. Euzkadi, geure Abefi bakafa da. Arerijoz inguratuta gara. Euzkerea erijotz-bidian; euzko-ekanduak il-zorijan; euzko-bixija bixi atzefitafez itota lez. Geure gastediiak, ba, euzko-elburuba aztu ta bere bijotzeko mafe aragikerija ba -dagi... eztau Euzkadi'k bururik jasoko. Efukafija elburu bako gastedija daukan Abefija ¡Efukafija adore bako gastedija daukan Abefija! Biiotzean bixijena daukan gaxuaren antzekua irudifuten yat.

Eta elburu-mafasuna ta adoria geure bijotzetik ufatzeko txafkeririk egikofena aragikerija, lixunkerija, gorpu-zalekerija da. Lixunak, bere biiotza emakofuta daukan ezkero, emakoikerija baño ez dau mafe; lixunak gogua baño gorputza mafiago daben ezkero, gorputza asetzen dagiz alegin gustijak. Gixon lixunari ez buru ukatzerik eskatu... ez nekerik ta burukomiñik eskatu. Ori ez, erantzungo dausku, ori niretzat gauza latsegija da. Eta geure Abefi-azkatasunak bere sanetako odol gastia eskatzen dabela esango ba 'leutsagu... Ez, erantzungo leuskigu, sanetako odolik ez; lixunkeri-gose au asetziaz naikotzen naz.

Euzkadi-azkatasuna gura ixatia da bat eta Euzkadi azkatzeko biaf diranak egitia beste bat. Gaste lixunak, abeftzale bere buruba eginda be, eztau, orduba eltzian. Euzkadi adorez aldeztuteko bafu -indafik, lixunaren gogua gorpuzalekeriz ildo lez dagolako.

Zorijontsuba Euzkadi-etofkixuna gaste garbiz bere magala berotzen ba-dogu.

MAÑE.

E. A. B.

Mungia'tik.

ABADE IKASLEAK. — Gazte Ikaste nagusira juan dira abade ika Gaste asko dabil uri onetatik. Gu ixenak ipiñiteko lefo luzia biarko ke, eta gustiori opadautsegu ondo zaitezala, ta zuen asmuonak ondo dagizla, gero zuen bitartez gure artu dagian kistaf argitasuna. ¡Pri ba-dago!

Yufeta'tik Komillas'era ango ika naguzian bere ikasbideak sakonago ten Zamaloa'taf Iñaki Abade argija do ibili.

EUZKEL-IXEÑA.— Yufeta'ko Deunaren Ertxadonan ugutzau da di'taf Joseba'ren alabatxua, ixena ip Miren Itziar. Ama eta alabatxua aurkitzen diraz. Urte askotako.

EZKONTZAK.—Lenengo deyunak rodan igandian Garamendi'taf Miren, kume abeftzaleagaz, Gerediaga'taf ka, Izurtza'koa.

Lizundia'taf Koldobike emakume ñagaz, Lekue'taf Perdiñanda.

Zorijonak bitzuori, urte askotako zaitezala bixitza on bategaz.

ERIOTZA.—Oromiño auzoan ilda fa'taf Domeka (G. B.) bere bizitzak rairik onenian. Gaiko Jauna Berak gure ludiko egunak noz arte dirian guk. Atzekabean lagun gayakoz bere diari eta otoitz bere gogoen alde.

SORKUNI

MAÑARIA

LENENGO BARIKUZ.—Josu'ren jotz gozoaren opaz, seterdijetako Jaunartziak eta otoitzak egin ziran. egun ofetan, Panzeska deuna'ren zala-ta, Pantzeskataf - Irugafendafa elizkixun berezija euki eben.

JUAN-ETOŔIAK. — Bilbao'ra ziran Solaguren'daf Andere ta Lo Lone emakume begikoak.

—Ereño'tik etofi zan Elordieta'taf ren andera.

—Afasate'tik etofi ziran Dolo Koldobika abade jauna ta Bafu Markel abefkide gastia.

—Barikuz egon ziran emen Usa Kepa abeftzale zintzua ta bere alaba lobike emakume begikoa. Usaola'ta na, emeko zorgiñak zenbatuten etofi edo... ¡Ez zeregin txafa...!

—Igandez agufu genduzan Urki datzion Okamika'taf Miren eta ola'taf Salome Bilbao'ko anderak.

—Baña egubaztenez agufu gen nen. "Tabiratafa" ta "Agarel" dazle argijak.

GAZTAÑIA.—Iges ezeze, aurte aztañia ugeritxo dago. Lasef asi duten. Gabon-iguruan jateko, txa ...ko.

Supaztefian gagoz
gaztañak balegoz...
sagarduaz nastuta
urdalera betoz.

Bertso ori espanian danian, -efiak ufian egoten dira. Lagun p tuta (J. L.) aze janaldijak lasteF tañefe-jana baño une alayagorik

ELGOIBAR'KO "MIRENTXU Zure idazkija pozez irakufi gendu ak "aidoplano" ofa bialtzeko ereti daukagu "Mirentxu". Befia'taf zintzoa, alditxu ortan ira-ebaten -mendijon dabil eta; iñorako ta e asti barik ibili be bafiz. Beraz, ik gura dauzana, bertara etofi biafko txafena... Otxandijo aldetik be es andijak dagoz...

Gorantziiak, "Abefi" mutil-za "Aixerixa" ta "Atxolin" gastiari.

MAÑAR

Errenderi'ko E. A. B. areto onespena

Guztiok dakizuten bezela ones Mikel Donea'ren egunez egitekoa ña Donosti'n "Abeftzale espet eguna" zala atzeratzea erabaki z enderi'ko emakume abeftzale jat

Il onen 20'an egitea erabaki z zer esanik ez dago, Deun Mikel jendetza aundia etortzekoa baldin il onen 20'an gar gutxigo izango

Jai egokiak eratu dizkigute gu kumeak, oyena jakiña dago zerba azten ba dira ondo egin bestela la oa ala?

Ona zer nolako jaiak eratu di egun ofetarako:

Goizeko 7'tan.—Meza eta ja Eleiz Nagusian.

Goizeko 11'tan.—Areto edo onespena.

Eguardiko 12'tan.—Pelota-jokal ña "Orereta" pelota-tokian.

Afatsaldeko 3'tan. — Erestaldi Batzoki'ko "Lortzikote"-en gain.

Afatsaldeko 4'an.—Itzaldi edefa Ondoren "Orereta,,'n eusko-fo kaña 7'ak arte.

Afatsaldeko 7 ta erdietan.—A rienda edefa, saneufia 5,50 lko. Zer esanik ez dago aparimerienda emakumeak eta gizasemeak ere tezkela.

Ikusten dezunez irakufle egita programa apañagorik ezin efaz e ain eguna guzti ...ozgafia izatek rutako abeftzale Efenderi'n b dute egun ofetan, ofela egin dudik ez daukagu. Lezo, Oyartz Odafabi, iru Pasaiak, Altza-Efe gafaga, Ernani, Donostia eta aba izango dira egun ofetan.

¡Abeftzaleak, gertu, emakume egun aundia izango da-ta!

Oafa.—Apari-merienda'rako iz tzokian ipiñi leike.

AN

"ABELETXE" Edaritik onenak.
EDARITEGI BARRIJA Jakirik gozoenak.
Ada. San Mamés, 18'an.

Madrid'era

dijuazen euzkeldunentzat etxerik onena Olano-etxia.
Magdalena, 21, principal, izquierda.

¿Ametsa ote?...

Afats-zoria... Ilunabafa...
Mendi-ertzean dakust argi bat:
Geldi-geldiro sagar-ondotik
lore bat daror lufera.
Afatsaldeak txingar-aftean
eortzi du eguzkia...
Of Gaua menditik bera...
Mendi-ertzean dakust argi bat:
Ilargiaren adar sorgiña
apur-apurka agertzen da...
Geitzen ari dan Ilargi ori
euzkotaf oro Abefiaren
azkatasuna ote da...?

ZARAYA.

Uafa.—Olefki polit au, Chile'n bixi dan euzkotaf baten olefkija da.

Abefi'tik ufun bixi diran olefkarijen abestijak pozik entzun oi-dira, batez be ufunetik yatofkuzan olefkiioik abefi-gunaz idatziia datozanian. Zorijonak eta eta jafai.